

1923/2022 EBAZPENA, 2022ko irailaren 30ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak emana. Haren bidez, ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deia egiten da, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “PC162-163 T3CE”.

2022ko irailaren 30ean, Ikerketa Zerbitzuak ikertzaileak kontratatzeke hautaketa-prozesurako deia egiteko eskatu zuen, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez “PC162-163 T3CE” ikerketa-proiektua garatzeko, proiektuko lankide gisa. Ikerketa-proiektuaren ikertzaile arduraduna Cristina Gómez Polo da, unibertsitateko katedraduna, Zientzien Sailari atxikia.

Kontuan harturik Langileria Kudeatzeko Ataleko buruak egin duen proposamen-txostena, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak ontzat eman duena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak errektoretza-taldearen egitura orokorra onetsi eta bere funtzioak zehazteko 2019ko uztailaren 3an eman zuen 1420/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetu dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Ikertzaileen lan kontratazioa egiteko hautaketa-prozesurako deialdia onestea jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez honako ikerketa-proiektu hau garatzeko: “PC162-163 T3CE”, baita deialdiaren oinarriak ere.

Bigarrena.- Ebazpen hau Hautapen Batzordeko kideei eta Ikerketa Zerbitzuari aditzera ematea.

Hirugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Unibertsitatearen iragarki-ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.

Iruñean, 2022ko irailaren 30ean

Francisco J. Arregui San Martín
Ikerketako errektoreordea

IKERTZAILEEN LAN KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA HONAKO IKERKETA-PROIEKTU HAU GARATZEKO: “PC162-163 T3CE”

Hauek dira deialdia arautuko duten

OINARRIAK

1.- DATU OROKORRAK

-Deialdiaren xedea: deialdi honen xedea ikertzaileak hautatzea da, ondoren lan kontratazioa egiteko, jarduera zientifiko-teknikoen kontratu bidez, ikerketa-proiektu hau garatzeko: “PC162-163 T3CE”.

-Maila profesionala: proiektuko lankidea, batez ere ikerketa-lanetan aritzeko.

-Eginkizunak: oinarri karbonosoa duten fotokatalizatzaileen sintesia, ikusgai dauden eta nukleo magnetikoa duten aktiboak; material mesoporosoen karakterizazioa; kutsatzaileen ezabaketaren ebaluazioa adsortzio- eta fotokatalisi-prozesuen bidez; jarduera fotokatalitikoaren eta biokatlitikoaren analisisia batch moduan eta balidazioa hondakin-urekin egindako saiakuntzetan.

-Kontratu mota: jarduera zientifiko-teknikoen kontratuaren modalitatearen bidez egingen da kontratazioa, Zientziari, Teknolari eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 23bis artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

-Iraupena: mugagabea, “PC162-163 T3CE” ikerketa-proiektuari lotua.

-Lanaldi mota: osoa.

-Ordainsariak: Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Ikertzaileak Kontratzeko Arautegiak bere eranskinean ezarritakoak, 2022. urtera egokituak; arautegi hori 2017ko maiatzaren 3ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez onetsi zen, eta 2022ko apirilaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez aldatu.

Ordainsariak ordaintzeko aukera egonen da, proiektuan ezarritako helburuak betez gero. Diru-gehirri horiek ordaintzeko, proiektuaren arduradunak ordaintzea justifikatzen duen azken txosten bat egin beharko du, eta aurrekontuan diru kopuru nahikoa izan beharko da.

-Finantzaketa: Nafarroako Gobernua.

-Argitaratzeko tokiak: Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gainera, deialdiarekin lotutako egintza eta ebazpen guztiak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Hautaketa-prozesuan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiar Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen batekoa.

Halaber, Espainiako, Europar Batasuneko estatuetakoa eta aipatu nazioarteko itunak aplikatzen diren eremuko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek parte hartzeko aukera dute, betiere zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere parte hartzeko aukera dute, zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan sartuta ez dauden herrialdeetakoak izan eta Espainian legezko bizilekua duten atzerritarrek administrazio publikoetako lan kontratupeko langile aritzeko aukera izanen dute. Espainian bizi ez diren atzerritarrek parte hartzeko aukera izanen dute, betiere parte hartzeko betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, kontratazioa egin ahal izateko atzerritartasunari buruzko legeek eskatzen dituzten baimenak lortu beharko dituzte.

b) 18 urte baino gehiago izatea, eta erretiro adina betea ez izatea.

c) Gutxienez ere 300 ECTS dituen Graduak irakaskuntza titulazio ofiziala, Masterra, Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza edo hezkuntza alorrean eskuduna den ministerioak ezarri duenaren arabera, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 3. mailari (masterrari) dagozkion titulazioak.

Atzerrian erdietsitako titulazioak badira, izangaiak eskuan izan beharko du homologazioaren egiaztatzea, edo baliokidetzeara, hala badagokio. Betekizun hori ez zaie aplikatuko lanbide arautuen eremuan prestakuntza profesionalaren aitortzea Europako Erkidegoko Zuzenbidearen xedapenen babesean erdietsi duten izangaiei.

d) Deialdiko xede diren lanpostuak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisikorik edo psikikorik ez edukitzea.

e) Diziplinako espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ez egotea epai irmo baten bidez ezgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

2.2.- Aurreko arauetan ezarri diren baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira, eta kontratazioa egin arte beteko dira.

3.- ESKAERAK

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun balioudun igaro ondoren bukatuko da, deialdi hau **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Hautaketa-prozesu honetarako **inskripzioa telematikoki** egin beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren goitza elektronikoaren bidez, helbide honetan:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/sede/zerbitzu-katalogoa/guztiak/ikertzaileen-hautaprobak>

Lehenik, “**Hasi tramitea**” botoia sakatu behar da.

“**Erantsi fitxategiak**” eremuan, dokumentu hauek erantsi beharko dira lanpostu kategoria bakoitzerako:

- Parte hartzeko eskabidea.
- Nortasun Agiri Nazionalaren, AIZren edo pasaportearen fotokopia.
- Deialdian eskatzen den tituluaren fotokopia.
- Espediente akademikoaren fotokopia, batez besteko nota zehaztuta.
- Curriculum vitae, norberak egoki jotzen dituen merezimenduen egiaztatagirikin batera.

Parte hartzeko eskabide eredia esteka honetan dago:

<http://www2.unavarra.es/gesadj/registroGeneral/instancias/recursos-humanos/contratacion-personal-investigador.pdf>

4.- IZANGAIEN ONARPENA

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, baztertua izateko arrazoia esanez, baztertuen kasuan. Izangai bazterturik ez bada, zuzenean onetsiko da behin betiko zerrenda.

4.2.- Hirugarren oinarriak aipatzen dituen dokumentuak ez aurkezteagatik behin-behinean baztertzea galarazi gabe, eskaera epez kanpo aurkeztea edo lehiaketaren bidez lortu nahi den lanpostua betetzeko bete behar diren baldintzak ez betetzea baztertzeko arrazoiak izanen dira, eta, gainera, horiek ezin izanen dira zuzendu.

4.3.- Izangai baztertuek edo zerrendan azaldu ez direnek zilegi dute erreklamazioa egitea eta, akatsen bat badago, akatsak zuzentzea, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 5 egun baliouduneko epean. Ezartzen den epean baztertuak izateko arrazoia konpontzen ez duten izangaiak behin betiko baztertuko dira, eta ez dute probarik eginen.

4.4.- Eskaerak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea bukatu eta gero, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

4.5.- Izangaiak hautaketa-prozesuan onartuen zerrendan egoteak edota 6.2 oinarriak aipatu hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrendan egoteak ez du ekarriko inoiz ere unibertsitateak aitortzea betetzen dituztela deialdiko oinarrietan eskatu diren baldintza orokorrak edo bereziak. Kontratatzeko deitzen dituzten izangaiek ziurtatu eta egiaztatu beharko dituzte horiek, jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko baitute kontratua sinatzen dutenean.

4.6.- Parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin alderaturik jatorrizko dokumentazioa okerra edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, kontratua sinatzeko ezintasuna eta kontratazio zerrendatik baztertzea ekarriko du, interesdunak berak sinatuko duen erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorritik.

5.- HAUTAKETA-PROZESUA

Izangaien merezimenduak baloratuko dira, aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorritik eta I. eranskinetako baremoaren arabera.

Izangaiek eskabideak aurkezteko epea bukatzean dituzten merezimenduak bakarrik baloratuko dira, eta gero lortutakoak ez dira kontuan hartuko. Hautapen Batzordeak inola ere ez du onartuko izangaiek alegatu ez duten edo agirien bidez frogatu ez duten merezimendurik, eta ezin izanen du apartatu bakoitzean adierazitako gehieneko puntuazioa baino handiagorik eman.

Adierazten diren merezimendu guztiak zuzenbidean baliozkoa den edozein baliabideren bidez frogatu behar dira.

Hautapen Batzordeko kide bakoitzak baloratuko ditu izangaien merezimenduak. Azken puntuazioa izangai bakoitzari emandako puntuazioen batezbestekoa izanen da.

6.- HAUTAKETA-PROZESUAREN EBAZPENA

6.1.- Izangaiek aurkeztutako merezimenduen balorazioa amaitu eta gero, Hautapen Batzordeak Ikerketako errektoreordeari bidaliko dio hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazioekin.

6.2.- Ikerketako errektoreordeak ebazpena emanen du hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda onesteko, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoa argitaratuko da.

6.3.- Deialdi honetan sortzen den kontratazio zerrendak 3 urteko indarraldia edukiko du argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Indarrean dagoen bitartean, kategoria bera eta ia eginkizun berak dituzten langileak kontratatzeke premia sortzen denean ere erabiliko da kontratazio zerrenda hori, proiektu, kontratu, hitzarmen edo katedra baterako edo institutuko edo ikerketa-taldeko funtsetarako izan, betiere hurrenkera ordena errespetatuz.

6.4.- Deialdi honen ondoriozko kontratazio zerrendan egonik kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie beste edozein lanpostutarako kontraturik eskainiko. Dena dela, eskainiko zaie baldin eta kontratua bukatzeko 15 egun edo gutxiago gelditzen badira.

7.- HAUTAPEN BATZORDEA

Batzordeburua: José Ignacio Pérez de Landazábal Berganzo doktorea, unibertsitateko katedraduna, Zientzien Sailari atxikia, Ikerketako errektoreordeak delegatuta.

Idazkaria: Cristina Gómez Polo doktorea, unibertsitateko katedraduna, Zientzien Sailari atxikia.

Batzordekidea: Juan Jesús Beato López doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Zientzien Sailari atxikia.

HAUTAPEN BATZORDE ORDEZKOA

- Batzordeburua: Alberto López Ortega doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Zientzien Sailari atxikia.
- Idazkaria: Eneko Garayo Urabayen doktorea, kontratupeko irakasle doktorea, Zientzien Sailari atxikia.
- Batzordekidea: Vicente Sánchez-Alarcos Gómez doktorea, unibertsitateko irakasle titularra, Zientzien Sailari atxikia.

Hautapen Batzordearen jarduerak, une oro, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen dutenaren arabera gauzatuko dira. Jakinarazpenak egiteko eta bestelako gorabeheretarako, Hautapen Batzordearen egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoko Administrazioko eta Kudeaketako eraikina izanen da.

8.- DATU PERTSONALEN BABESA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak langileen kudeaketaren arloan antolatutako prozesuetan parte hartzeak interesdunen datuak tratatzea ekarriko du berekin. Datu horien tratamenduaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa da.

Datuen tratamendua aplikatzekoa zaion araudiari jarraikiz egingen da, hots, Datuak Babesteko 2016/679 EB Erregelamendu Orokorrari eta Datu Pertsonalak Babesteko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz. <http://www.unavarra.es> webgunean argitaratutako Tratamendu Jardueren Erregistroan kontsulta daiteke nola egingen den tratamendu hori, “GIZA BALIABIDEAK” atalean.

Tratatuko diren datuak batez ere hautaketa-prozesuetako izangaiak eta NUPeko langileenak izanen dira; hauek hain zuzen ere: izena, deiturak, NANA, datu akademikoak eta profesionalak eta, beharrezkoa denean, bankuko datuak eta Gizarte Segurantzakoak, edo ondoren deskribatzen den xedea betetzeko beharrezkoak direnak.

Datuen tratamendua justifikatzen duen xedea hau da: hautaketa-prozedurak, mugikortasunekoak, egoera administratiboak, ziurtagiriak, edo Giza Baliabideen arloan NUPen eskumenekoak diren beste batzuk tramitatzea.

Xede horrek interes publikoa edo botere publikoa legitimatzen du, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ezartzen duen bezala. Hauek dira oinarri juridikoak, langileei buruzko beste arau batzuen artean: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2015eko urriaren 30ekoa, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzura dauden Langileen Estatutuaren testuategina onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, 1993ko abuztuaren 30ekoa.

Datuak tratatzeko jardueri dagokienez, interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, haiei kontra egiteko eta transferitzeko. Horretarako, mezu bat bidali behar dute delegado.protecciondatos@unavarra.es helbidera, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulutik 18. artikulura bitartekoei jarraikiz.

Desadostasunen bat izanez gero, Datuak Babesteko Espainiar Agentziara jo dezakete, <https://www.aepd.es/> domeinuaren bidez.

9.- ERREKURTSOAK

Hautapen Batzordeak erabakitzen dituen egintzen aurka, zilegi da gora jotzeko errekurtsua jartzea, errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, aurkaratzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Deialdi honen aurka, haren oinarrien aurka eta beroriek aplikatzeko egintzen aurka, Hautapen Batzordeak egindakoak ez direnean, zilegi da ondoko errekurtsuetako bat jartzea, arau indardunekin bat etorritz:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsua errektorearen aurrean, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

I. ERANSKINA

Ikertzaileak hautatzeko baremoa

ERABILIKO DEN BAREMOA ETA/EDO EGINEN DIREN PROBAK	
1. APARTATUA: Espediente akademikoa	Puntuak 60
Titulazioaren espedientea akademikoa proportzionalki baloratuko da, 10 punturekin gehienez ere. Izangaia lizentziaduna edo ingeniaria bada edo 300 ECTSko gradua badu, titulazioa 10 punturekin baloratuko da gehienez ere. Izangaia, masterrarekin ere, 300 ECTS kreditura ailegatzen ez bada, 10 puntura bitarte balioetsiko da, proportzioan, titulazioaren eta masterraren ECTS kredituen kopuruaren portzentajea aintzat hartuz. Bi kasuetan, lortutako puntuazioa 6 faktorearekin biderkatuko da baldin eta aurkeztutako titulazioa Fisikako Lizentziatura/Gradua, Fisikako Unibertsitate Masterra, Kimikako Lizentziatura/Ingeniaritza/Gradua, Kimikako Unibertsitate Masterra, Zientzietako Gradua, Industria Ingeniaritza, Industria Ingeniaritza Teknikoa, Industria Teknologien Ingeniaritzako Gradua edo Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterra bada, eta 1 faktorearekin beste titulazioaren bat bada.	
2. APARTATUA: Aldez aurreko esperientzia gauzatu beharreko jardueretan	Puntuak 10
- Unibertsitateetan, ikerketa-zentroetan edo enpresetan egindako I+G jarduera, proiektuaren xedearekin lotutako gaietan: 0,25 puntu kontratu edo bekaren hilabete bakoitzeko, doktoretza aurreko kontratuak barne, eta 5 puntu gehienez ere. - Lehiaketa-deialdien ikerketa-proiektuetan izandako parte-hartzea, proiektuarekin gaiekin lotutako gaietan (aurreko puntuan jaso gabekoak): 0,25 puntu proiektuan aritutako hilabete bakoitzeko, eta 5 puntu gehienez ere. Hilabetetik beherako denboraldiei puntuazio proportzionala emanen zaie.	
3. APARTATUA: Argitalpenak, kongresuetako ekarpenak,	Puntuak 10

prestakuntza-ikastaroak eta hizkuntzak		
<p>- Argitalpenak (2,5 puntu gehienez ere): 1 puntu SCIn indexatutako aldizkarietako argitalpen bakoitzeko, 1 faktorea aplikatuz proiektu honekin lotura zuzena baldin badu, 0,25 faktorea lotura partziala baldin badu eta 0,1 faktorea lotura txikia baldin badu; gainerako argitalpenetarako, 0,2 puntu proiektuarekin duen erlazioaren arabera.</p> <p>- Kongresuetako eta bilera zientifikoetako ekarpenak (2,5 puntu gehienez ere): 0,5 puntu ekarpen bakoitzeko, proiektuarekin duen loturaren arabera.</p> <p>- Prestakuntzako/espezializazioko ikastaroak (2,5 puntu gehienez ere): 0,5 puntu 10 orduko, ikastaroak proiektuarekin duen loturaren arabera.</p> <p>- Ingelesa: Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak jasotako mailen arabera baloratuko da: 2,5 puntu, C1 maila edo hortik gorakoa.</p>		
4. APARTATUA: Elkarrizketa pertsonala	Puntuak	20
<p>1., 2. eta 3. apartatuen baturan puntuazio handiena lortu duten 5 izangaiei elkarrizketa eginen zaie, betiere 35 puntu lortu badituzte gutxienez.</p> <p>Elkarrizketan kontratuaren xedea betetzeko gaitasuna eta eskatutako profilarrekiko egokitasuna balioetsiko dira.</p>		

Hautaketa-prozesua gainditzeko eskatzen den gutxienerako puntuazioa 40 puntu da.

Hautaketa-prozesuaren azken emaitzan gerta daitezkeen berdinketak 1. APARTATUAN puntuazio handiena atera dutenen alde ebatziko dira. Berdinketa badago, 2. APARTATUAN puntuazio handiena lortzen dutenen alde. Berdinketak jarraitzen badu, zozketaz erabakiko da.